

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Lehiaketa, Pobesen lokal bat errentan emateko eta ustiatzeko

Udalbatzak, 2016ko uztailaren 15eko bilkuran, udalaren lokal baten errentamendua eta ustiapena prozedura irekin bidez esleitzeko klausula ekonomiko-administratiboen agiria onartu zuen. Lokal hori Erriberabeitiko Udalarena da eta turismo bulego izateko eta inguruko produktuak sustatzeko erabiliko da. Onartutako agiria jendaurrean egongo da 8 egunez, iragarkia ALHAOn argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, interesa dutenek aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko. Horiek udalak ebatziko ditu eta, halakorik aurkezten ez bada, agiria behin betiko onartuta geratuko da.

Aldi berean, lizitazioa iragartzen da. Dena den, lizitazioa atzeratu egingo da hala behar deanean, administrazio klausula berezien agiriaren aurka erreklamaziorik aurkeztuz gero.

1. ERAKUNDE ESLEITZAILEA.

a) Erakundea: Erriberagoitiko Udala.

2. KONTRATUAREN XEDEA.

Turismo bulego izateko eta inguruko produktuak sustatzeko udal lokal bat errentan ematea eta ustiatzea.

b) Kokalekua: Araba 2 - 01420 - Pobes

c) Errentamendu aldia: 2 urte, baina luzatu daiteke.

3. IZAPIDETZEA, PROZEDURA ETA ESLEITZEKO MODUA.

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

Izapidetzeko era: lehiaketa.

4. ALOKAIRUAREN ZENBATEKOA

Gutxienez 50,00 euro hilean (BEZa, zergak eta gastuak barne hartu gabe)

5. BERMEAK.

a) Behin-behinekoa: ez da ezartzen.

b) Behin betikoa: hileroko hiru alokairu

6. ESLEITZEKO OINARRI IZANGO DIREN IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

1. Errentan emandako higiezinaren ustiaketa proiektu onena.

2. Eskainitako errenta handiena.

Eskaintzak balioetsiko dira aurreko irizpideei puntu hauek (gehienez, 100) eskainiz

1. Ustiaketa proiektu onena: gehienez, 50 puntu.

Kontuan izango dira ustiapenean izango den langile kopurua, haien prestakuntza, negozioan erabiliko diren baliabide materialak higiezinan daudenez gain, eta jardueraren planteamendua. Gehienez, 25 puntu.

Balioetsi egingo dira, halaber, gehienez ere beste 25 puntuz, udalerriari eta inguruari buruz turista eta bisitariari doan ematen zaien informazio eta sustapen programa edo proiektua. Horretarako, kontuan izango dira, batez ere, arreta egutegia eta ordutegia eta informazioa emateko erabiliko diren euskarriak eta hizkuntzak. Informazio eta publizitate agiriak hirugarrenek egin edo eskaini ahal izango dituzte.

2. Eskaintako errenta handiena: gehienez, 50 puntu.

Lizitazio oinarria zenbat eta gehiago hobetu orduan eta puntu gehiago emango dira; Alegia, igoeraren ehunekoak kalkulatzeko, eskaintzarik handienari alor horretarako zehaztutako gehieneko puntuazioa emango zaio, eta gainerako lizitzaileei handienaren arabera ehunekoari dagozkion puntuak. Puntuatzean, bi hamartarren biribiltzea egingo da.

7. DOKUMENTAZIOA ETA ARGIBIDEAK ESKURATZEA.

a) Herria eta posta kodea:

Erriberagoitiko Udala

Araba 2 - 01420 - Pobes

Telefonoa: 945 36 20 21

Faxa: 945 36 20 07

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte.

8. ESKAINTZEN AURKEZPENEA.

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 22 egun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo jaieguna izanez gero, hurrengo egun baliოდunera atzeratuko da.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: klausula administratiboen agirian aipatzen direnak.

c) Eskaintzak aurkezteko lekua:

Erriberagoitiko Udala

Araba 2 - -01420 - Pobes

9. ESKAINTZAK IREKITZEA.

Non:

Erriberagoitiko udaletxeko osoko bilkuren aretoa

Herria: Araba 2 - 01420 - Pobes

Eguna:

A gutun azala, jendeari itxitako bilkuran.

B gutun azala, bosgarren egunean, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatuta, 10:00etan. Larunbata edo egun baliogabea izatekotan, hurrengo egun baliოდunera atzeratuko da.

10. IRAGARKI GASTUAK: esleipendunak ordainduko ditu.

Pobes, 2016ko uztailaren 15a

Alkatea

JESUS BERGANZA GONZALEZ